

d) *Euskaltzaindiaren iker lanak*

Luis Mitxelena jaunak Euskaltzaindiaren iker lanei buruzko txostena irakurri du. Iker lanak jarraitzeko bide batzuk markatu ditu. Hiztegi osatzeak eta batez ere gramatikazko ikerketak bizkortu beharra adiarazi du. Batez ere, bereizkuntze zehatzak egiteko puntu batzuk ikutzen ditu. Gramatika arloan ilunbetan dauden hauzietan lan egiteko, eta, euskalkirik euskalki azentua eta sintaxis kontua hobeto bildu eta aztertu. Bere txostenaren barna zenbait exemplu aipatu ditu.

e) *Aditz batuaren gora-beherak*

Patxi Altuna jaunak, batzordeko idazkaria den aldetik, berak gertatu eta irakurri du txosten bat. Jokabideen berri jakin nahi dutenentzat gertatua da behinik-pehin, onartutako adizkiak eta baztertutakoak nola eta zergatikakoa adiaraziz. Batzordeak 1971-1973 urteetan egin zituen bilkura eta erabaki nagusiak aipatzen ditu eta baita ere aditz laguntzailean hartu behar izan ziren erabakirik latzenen xehetasunak. Geroan jakin dezaten zer nolako hautapenak egin ziren.

f) *Ulibarriren omenez*

Arabako Okondon (Okendo) abuztuaren 17an egingo den batzarraren berri eman da.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1975-VIII-17

BILTZAR IREKIA OKONDON ULIBARRIREN OMENEZ

Batzar agiria

Okondoko (Araba) Gizarte Etxean, 1975eko abuztuaren hamazazpian, goizeko 11 t'erdietan, meza nagusiaren ondotik, biltzar irekian bildu dira: L. Villasante euskaltzainburua, A. Arrue, A. Irigoyen, eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak;

Julene Azpeitia ohorezko euskaltzaina eta E. Agirretxe, L. Akesolo, N. Altzola, J. M. Aranalde, X. Aranburu, M. Atxaga, I. Baztarrika, K. Enbeita, J. Fz. Setien, J. Garmendia Larrañaga, X. Garmendia, J. Intxausti, J. M. Iriondo, X. Kintana, H. Knörr, I. Laspiur, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, Peli Martin, X. Mendiguren, J. A. Retolaza, J. M. Torrealday, P. Uribarren, P. Zabaleta, J. Zaitegi eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaileak, J. San Martin Idazkari dela.

Horiez gainera, mahai-buruan, Arabako Gobernadorearen ordez, Barquero jaun idazkaria; Arabako Foru Diputazio-ko Martínez de Bujanda eta Sainz Angulo, jaun diputatuak; A. Abasolo, Okondoko alkate eta herriko kontzejalak; F. Murga, Okondoko Andre Mari Untzakoaren parroko jauna; A. Fz. de Pinedo, Okondoko Gizarte Etxeko lehendakari jauna; Aia-ara eskualdeko, Artzeniega, Arrespalditza, Arrastaria eta Laudio-ko alkate jaunak; P. Sancristoval, Arabako Diputazioaren Kultur Batzarraren zuzendaria; eta J. R. Urkixo, "Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País" en zuzendaria. Saloia herriko jendez beterik hasi da biltzar irekia.

Euskaltzainburuak agurrezko hitzez ireki du egitaraua, euskaraz eta erdaraz.

A. Arrue jauna, Ulibarri herri gizon zenaz mintzatu zen. Eredutzat jo zuen eliztarra, foruzale eta euskaltzale izan zelarrik, Euskal Herriko gauzarik maitagarrienen suspertzaile.

L. Akesolo jaunak, Ulibarriren bizitza eta lanak azaldu zituen. Gaur eguneko euskalgintzan horren baliagarri ditugun hiru ekintzen aintzindari izan genuen Ulibarri, ikastolak, alfabetatze eta Euskaltzaindia hain zuzen ere.

N. Altzola jaunak, Ulibarriren literatur alderdia aztertu zuen. Bere lanik nagusia *Gutunliburua* izan zen eta horrez gainera "Egunari euskarazkoa erderazkotik itzulia, Bizkai, Gipuzkoa ta Arabako Probintzietan, 1815' garren urterako" euskal egutegia, Leizarragaren *Kalendrer*a-rekin batera euskal egutegirik zaharrena; *Gabon kantak*; hiztegi bat eta makinatxo bat harreman orduko euskaltzaleekin.

H. Knörr jaunak, Okondo bere jaioterriari buruz Ulibarrik zer esan zuen azaldu zuen. Orduko giroa, euskerazko eskola t.a.

F. Barrenengoa jaunak Aiara eskualdean euskara noiztik nora atzeratuaz etorri den, eta tokiz toki aurkitu dituen euskalkizko berezitasunak adierazi zituen. Eskualde horretako toponimia azterketa lana ere aipatu zuen.

P. Sancristoval Murua jaunak, Arabako Foru Kultur Batzarrak fakzimilez argitara berri duen Ulibarriren "*Gutunliburua*"ren aurkezpena egiten du.

Ondorean, Euskaltzaindiko laguntzaile berri hauei diploma-agiriak banatzen zaizkie: J. M. Aranalde, X. Aranburu, M. Atxaga, J. Garmendia Larrañaga, J. M. Iriondo, H. Knörr, I. Laspiur, J. A. Letamendia, X. Mendiguren, J. A. Retolaza, J. M. Torrealday, P. Zabaleta eta J. J. Zearreta-ri.

Bukatzeko, Gobernu Zibileko Barquero idazkari jaunak, F. Ugarte jaunaren ezin etorria adiaraziaz, bere izenean agurtzen ditu batzarkide guztiak.

—oOo—

Ondorean, elizaurreko plazan J. P. Ulibarriren omenezko oroitarria agertzen dute herriko alkate eta euskaltzainburuaren artean.

Diputazioko dantzariak Arabako zenbait dantza egin dituzte.

Anaitasunezko bazkari ondorean, herri jaialdia frontoian. Arabako dantzariak, Okondoko Musika Akademiakoak, Gorka eta Jon Knörr, eta Embeitatar bertsolariak parte harturik.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1975-IX-28

BILTZAR IREKIA AIHERRAN

Aiherran (Baxe-Nabarre), Hermezaren ondotik, herriko trinketean, 1975eko irailaren 28an, biltzar irekian bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar, J. L. Davant, L. Dassan-